leioa
Udal aldizkaria
2005 · **42. Zbk.**
LEIOA ELIZATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE LEIOA
www.leioa.net

# Mass of the Children

## John Rutter

**Leioa Kantika Korala**
**Coral San Juan Bautista de Leioa**
**Jóven Orquesta de Leioa**
**Svetla Krasteva** - Soprano
**Jesús Mª García Aréjula** - Barítono
**Basilio Astúlez** - Director de Coros
**Margarita Lorenzo de Reizábal - Directora**



**23 de octubre, a las 19:00 en el PALACIO EUSKALDUNA**

PATROCINADO POR:
BIZKAI EDER 2000
GRUPO BILBO EDER
tel. 944 793 282

# Leioa con música
## en el Euskalduna



Nuestra "pequeña ciudad" de Leioa realizó, ya hace años, una apuesta clara por la música. Si, dentro de la tradición musical propia del País Vasco, nuestro pueblo ha contado en el pasado con distintas manifestaciones musicales, singularmente en la disciplina de música coral, en años más recientes ejercitó una opción clara por la educación musical. Esta se concretó, allá a principios de los años ochenta, con la creación de la Escuela de Música y el Conservatorio Municipal de Leioa.

Desde aquellos momentos, éste Centro no sólo ha crecido en términos cuantitativos, en números más o menos significativos, sino que ha madurado en calidad y proyección. Muchos son los niños, jóvenes y no tan jóvenes que han llenado y disfrutado de sus aulas e instalaciones. Junto a una ampliación progresiva de asignaturas e instrumentos, se ha consolidado un cuerpo docente de reconocido prestigio en nuestro entorno, alcanzando excelentes parámetros de calidad educativa musical y una proyección artística de muchos quilates en numerosos e importantes escenarios nacionales e internacionales.

Hemos nutrido humildemente, desde nuestra dimensión pero de modo significativo, el acceso a la educación musical superior en Euskadi. Se ha abierto, también, una nueva vía: la colaboración y enriquecimiento mutuo con el Conservatorio de Baiona. Y si son muchos quienes han hecho de la música un fragmento importante en su vida, otros han optado por ser músicos profesionales, haciendo de la música su vida.

Dicen que la música añade sentido y significación al lenguaje, produce emociones y modula el alma de los humanos. La música produce, sin duda iguales efectos en una comunidad. Y, por ello, la música en Leioa puede ser y está siendo un potentísimo elemento para el crecimiento del alma de nuestra pueblo. En un municipio que ha crecido tanto en términos urbanos y que viene recibiendo la incorporación de nuevos vecinos y vecinas, estamos creciendo, también, en nuestros

propios sentimientos de identidad y pertenencia. Leioa está madurando en el modo en que se expresa ante sí misma y hacia su entorno.

Por todo ello, y por contar con unas formaciones artísticas de alto nivel y con un programa de gran interés, hemos creído oportuno celebrar este encuentro en el Euskalduna de Bilbao.

Para ello contamos con el patrocinio de la empresa BIZKAIEDER, protagonista en nuestro desarrollo urbano y comunitario, comprometida singularmente con la ejecución del PERRI (Plan Especial de Reforma y Rehabilitación Interior) de Lamiako y la Chopera. BIZKAIEDER ha entendido perfectamente el sentido y la relevancia de este encuentro, por lo que queremos agradecerle su decisiva colaboración para que este concierto sea posible.

Leioa quiere ser una pequeña ciudad universitaria. Un espacio amable para vivir y para disfrutar. Para la formación y el conocimiento. Para la creación de empleo y el desarrollo socio-económico. Y todo ello con música. ■



**Karmelo Sáinz de la Maza Arrola**
Alcalde de Leioa

---

**Palacio Euskalduna**
Domingo, 23 de octubre, 19:00hr

**Entradas:** 10 € / 6 €
Conservatorio Municipal de Leioa
www.euskalduna.net
TEL. 944 310 310
cajeros multiservicio BBK
taquillas del Palacio Euskalduna

La recaudación del concierto se destinara a la **Cruz Roja del País Vasco**, para el Programa de Formación Profesional para Mujeres y Minorias Étnicas en Nepal



Las actividades de Cruz Roja van dirigidas a personas mayores, infancia, inmigrantes y colectivos vulnerables, dando respuesta a las emergencias humanitarias, sanitarias, sociales y medioambientales a nivel nacional e internacional.

El programa de formación profesional para mujeres y minorías étnicas en Nepal se encuentra en la cartera de proyectos prioritarios de Cruz Roja, en concreto en el proyecto de desarrollo institucional y promoción de la mujer al cual va destinada la totalidad de la recaudación de este concierto.

Cruz Roja
Gurutze Gorria

# Programa

## PRIMERA PARTE

| | |
|---|---|
| **Tximeletak** | E. Ugalde |
| **Dubula** | H. Leeck (Arreglo) |
| **Keren or** | A. Nini y G. Dor |

### LEIOA KANTIKA KORALA

Piano: **Itziar Bilbao**
Director: **Basilio Astúlez**

| | |
|---|---|
| **Crucifixus** | A. Loti |
| **Ave Maria** | J. Busto |
| **I was glad** | Sir H. Parry |

### CORAL SAN JUAN BAUTISTA DE LEIOA

Órgano: **Oscar Candendo**
Director: **Basilio Astúlez**

| | |
|---|---|
| **Concertino para flauta y orquesta** | C. Chaminade |
| **Sinfonía española** (1º Movimiento) | E. Lalo |
| **Danza Eslava Nº 8** | A. Dvóràk |

### JÓVEN ORQUESTA DE LEIOA

Flauta: **Xabier Calzada**
Violín: **Andrea Duca**
Directora: **Margarita Lorenzo de Reizábal**

**Descanso de 20 minutos**

## SEGUNDA PARTE

**Mass of the children** (Estreno en el Estado) — John Rutter

- Kyrie
- Gloria
- Sanctus - Benedictus
- Agnus Dei
- Finale (dona nobis pacem)

### LEIOA KANTIKA KORALA
### CORAL SAN JUAN BAUTISTA DE LEIOA
### JÓVEN ORQUESTA DE LEIOA

Soprano: **Svetla Krasteva**
Baritono: **Jesús Mª García Aréjula**
Director Coros: **Basilio Astúlez**
Directora: **Margarita Lorenzo de Reizábal**

**Nota:** Antes del concierto, en el hall del teatro, **la Banda de Música de Leioa** obsequiará al público con obras de J. Franco, J. Behaan, S. Scwartz y K. Vlak.



# Mass of the children

## John Rutter (1945 - ...)

"Aunque es quizá muy conocido por sus villancicos y otras obras de corta duración, John Rutter también tiene obras de grandes proporciones para coros y orquesta como su *Requiem*, *Gloria*, *Magnificat*, *Psalmfest*, su ópera para niños *Bang!* y la *Misa de los Niños* que fue estrenada en el Carnegie Hall de New York, en febrero de 2003. Esta Misa está escrita para coro mixto, coro de niños, soprano y barítono solistas y orquesta. El texto está escrito a modo de una "Misa brevis" (sin Credo) a la que se han añadido varios textos poéticos ingleses de renombre. Su interpretación en el Palacio Euskalduna será estreno en todo el Estado español.

La obra no comienza inmediatamente con el "Kyrie Eleison", sino con el himno de la mañana "Awake, my soul, and with the sun", cantado por el coro de niños. Aparece después un exuberante y enérgico "Gloria", con ritmos desiguales, típico de la viveza de Ruther. Le sigue el "Sanctus-Benedictus" con un cambio total de expresión, apoyado en una dulce estructura armónica. En el cuarto movimiento, al texto del "Agnus Dei" le sigue un poema, "The Lamb", cantado por el coro de niños. El movimiento final comienza con dos plegarias, del propio John Rutter, para el barítono y soprano solistas respectivamente, seguidas del hermoso himno de la noche "Glory to thee, my God, this night" cantado por los niños, entremezclado con el canto del coro de adultos "Dona nobis pacem". Coros y solistas culminan la obra juntos, llegando a una conclusión llena de paz.

En su *Misa de los Niños*, John Rutter no combina el coro de niños como algo complementario al de adultos, sino que le reserva un protagonismo especial. Son ellos los que se hacen escuchar desde el principio y su presencia se mantiene a lo largo de la Misa como un concepto global. Nos encontramos ante una partitura maravillosamente creada para las voces y admirablemente orquestada. Su hábil escritura para solistas, coros y orquesta y su sensibilidad para entremezclar los textos en latín con los ingleses ha dado como resultado una excelente y conmovedora obra." ■

**John Bawden**
Director Musical
Fareham Philharmonic Choir

# Leioa Kantika Korala

## Director: Basilio Astúlez

Nace en el año 2001 en el seno del Conservatorio Municipal de Leioa, por iniciativa de su director Basilio Astúlez. Formado por 50 chicos y chicas de entre 10 y 17 años, todos ellos alumnos del Centro, tiene como objetivo prioritario hacerles partícipes del disfrute de la música coral y ampliar su formación musical, abarcando para ello la mayor variedad y riqueza posible de estilos y repertorio.

Desde sus inicios Kantika ha tomado parte en diversos encuentros y festivales corales tanto en Euskal Herria como fuera de ella (Bilbo, Gasteiz, Donostia, Ávila..).

En el año 2003 el coro participa en el XI Festival Internacional de Música para Jóvenes "Vilanova de Gaia 2004" en Oporto, junto a coros y orquestas juveniles de muy diversa procedencia con gran éxito de crítica y público. Paralelamente realiza una gira de conciertos por Euskal Herria conjuntamente con Gaudeamus Korala y la Jóven Orquesta de Leioa, con un programa de autores vascos contemporáneos, presentado finalmente en Musikaste 2003 (Renteria) y recogido en disco compacto bajo el título de "Juegos de Otoño". Entre otras, este CD contiene la obra "Iratxoa" de la joven compositora donostiarra Eva Ugalde, escrita especialmente para este proyecto.

En julio del 2004 viaja a Islandia para tomar parte en la "II Semana Cantante de Kopágovur" junto a 13 coros infantiles de Asia y Europa. Además de ofrecer varios conciertos para el festival, Kantika realiza un taller especializado en música escandinava bajo la dirección del prestigioso maestro islandés John Steffanson.

Ese mismo año toma parte en la inauguración de la 53 Temporada de ABAO, interpretando la ópera "La Bohéme" de G. Puccini, junto al tenor Aquiles Machado y la soprano María Bayo. Simultáneamente participa en el 36 Festival Internacional Coral de Tolosa, certamen de reconocido prestigio junto a cinco coros infantiles de muy diversa procedencia.

En junio de 2005 interviene en la Catedral de Baiona en el estreno en Francia de "Mass of the children" del compositor ingles John Rutter. En el mes de julio ha participado en el Festival "Europa Cantat Junior" de Barcelona, bajo la dirección de la israelí Naomi Farahm. ■



# Coral San Juan Bautista de Leioa

## Director: Basilio Astúlez

Esta agrupación coral acredita una gran tradición y arraigo en el mundo coral vizcaíno. Fundada en 1968 por Jose Ignacio Sarría, en su amplia trayectoria ha realizado numerosas colaboraciones con prestigiosas orquestas y directores, así como actuado en gran número de auditorios y teatros del país. Posee además cuatro grabaciones discográficas, una de ellas dedicada a la música de Antón Larrauri, y ha participado en importantes certámenes corales, destacando la Medalla de Plata en el Certamen Internacional de Tolosa (1971) y la Medalla de Oro en el Certamen de Habaneras de Torrevieja (1972).

En 1995 se fusiona con el Conservatorio Municipal de Leioa y desde 1999 se hace cargo de su dirección Basilio Astúlez. En este último período la Coral de Leioa ha participado en numerosos certámenes nacionales donde ha recibido importantes premios, entre ellos: Segundo Premio en el Certamen Coral " Fira de Tots Sants" Concentaina-Alicante (1999); Segundo Premio en el Certamen Coral " Villa de Autol"-La Rioja (2000); Segundo Premio en el II Certamen nacional de Música Religiosa de Novelda-Alicante (2002); Primer Premio en el XXVI Certamen Coral Nacional " Villa de Rojales"-Alicante (2002); Segundo Premio en el XIV Certamen Internacional "Villa de Griñon"-Madrid (2005).

En el 2003 celebra el 25 aniversario de su fundación con un ciclo especial de conciertos, así como la edición de un disco compacto bajo el título "Gau ilunak ez badu...".

En abril de 2004 participa como única representante del Estado español en el VII Festival Internacional de Riva de Garda (Italia), junto a 110 agrupaciones corales de otros tantos países, habiendo obtenido Diploma de Plata en Polifonía y Diploma de Oro en Música Sacra, además de un gran éxito de crítica y público.

En estos últimos años, bajo la dirección de Margarita Lorenzo de Reizabal y junto a la Joven Orquesta de Leioa, ha interpretado principalmente: Requiem de Mozart en el Teatro Arriaga (2002) y en la Basílica de San Francisco el Grande de Madrid (2003); Misa en Do Mayor de Beethoven en el Ciclo de Conciertos de Cenarruza (2003) y en la Universidad de Segovia (2004); Mass of de Children de John Rutter en la Catedral de Baiona, en esta ocasión también junto a Leioa Kantika Korala (2005). ■



# Jóven Orquesta de Leioa

## Directora: Margarita Lorenzo de Reizábal

La Jóven Orquesta de Leioa fue fundada en el Conservatorio Municipal de Leioa en 1990, con objeto de formar a los alumnos en la difícil disciplina de músico de atril, de ahí su variado repertorio que se extiende desde el barroco hasta nuestros días. Tiene en su haber, así mismo, el estreno mundial de varias obras de compositores contemporáneos. Pertenecen a ella tanto alumnos de los últimos cursos de grado medio, como ex-alumnos que desean continuar ampliando repertorio y participar del ambiente musical y artístico de la orquesta.

Ha trabajado a las órdenes de los directores Nigel Wareham (1990-1993) y Margarita Lorenzo de Reizábal desde 1993. Así mismo, ha actuado con solistas de talla internacional, como el violinista Felix Ayo, y ha sido dirigida por los maestros Colman Pearce y Enrique García Asensio, en calidad de directores invitados.

A lo largo de estos años la Orquesta ha realizado una intensa labor concertística, tanto en Euskadi como en otras comunidades autónomas, y ha sido repetidamente solicitada en conciertos benéficos, congresos internacionales y conciertos didácticos.

En el apartado sinfónico-coral son frecuentes sus actuaciones junto a la Coral San Juan Bautista de Leioa, así como con el coro infantil Leioa Kantika Korala, destacando: Requiem de Mozart en el Teatro Arriaga de Bilbao y en la Basílica de San Francisco el Grande de Madrid; Misa en Do Mayor de Beethoven en el Ciclo de Conciertos de Cenarruza (2003) y en la Universidad de Segovia (2004); Mass of de Children de John Rutter en la Catedral de Baiona (2005).

La orquesta tiene en su haber cinco discos compactos, incluyendo entre ellos la Misa en Do Mayor de Beethoven, un programa íntegramente dedicado a compositores vascos contemporáneos con la participación de 90 voces blancas y la grabación en directo desde el Teatro Arriaga de Bilbao del Requiem de Mozart.

En junio de 2005, la Joven Orquesta de Leioa participó en el popular programa de RTVE " El Conciertazo", teniendo el compromiso de repetir su participación en el primer semestre de 2006.

La crítica especializada es unánime al destacar en las interpretaciones de la JOL la calidad del sonido, así como la frescura interpretativa y la seriedad del trabajo que lleva a cabo. ■





# Margarita Lorenzo de Reizábal

Directora

Nació en Bilbao, donde realizó los estudios Superiores de Piano, Armonía y Composición, con las máximas calificaciones y premios. Perfeccionó su técnica pianística con R. Requejo, E. Jiménez de Achúcarro e I. Picaza. Es Licenciada en Neuro-Cirugía por la Universidad del País Vasco.

Ha realizado una intensa labor concertística como solista y en grupos de cámara por todo el Estado español y Escandinavia. Ha sido pianista de la Orquesta Sinfónica de Bilbao desde 1982 hasta 1998, además de haber colaborado con otras orquestas del Estado.

Realizó los estudios de Dirección de Orquesta en Inglaterra con los maestros R. Saglimbeni, G. Hurst y N. Thompson. En 2001 realizó un master de Dirección de Orquesta en Surrey (Inglaterra), con los maestros R. Houlihan, Dense Ham y G. Hurst. En agosto de ese mismo año fue seleccionada de entre 48 directores de todo el mundo para dirigir la Orquesta del Curso Internacional de Dirección en Canford (Inglaterra). En Madrid ha trabajado bajo la dirección de Jesús López Cobos de quien recibe consejos periódicamente.

En 1987 obtuvo por oposición la cátedra de Armonía-Composición del Conservatorio Municipal de Leioa y desde 1993 es Directora Titular de la Joven Orquesta de Leioa, al frente de la cual ha realizado una intensa labor pedagógica y concertística, destacando: Teatro Arriaga y Palacio Euskalduna en Bilbao, Donostia, Gasteiz, Rentería (Musikaste), Auditorio Nacional de Logroño, varios conciertos en Madrid, Cataluña, Segovia y, recientemente, Catedral de Baiona con el estreno en Francia de la Mass of the Children de John Rutter.

Ha grabado cuatro discos compactos, incluyendo entre ellos la Misa en Do Mayor de Beethoven, un programa íntegramente dedicado a compositores vascos contemporáneos con la participación de 90 voces blancas y la grabación en directo desde el Teatro Arriaga de Bilbao del Requiem de Mozart.

Ha impartido cursos de piano, música de cámara e improvisación en el marco de diferentes cursos internacionales de verano (Bilbao, Donostia, Burgos, Valencia) y dirige asiduamente cursos de Análisis y Educación Musical para el profesorado, promovidos por el Gobierno vasco, Diputación Foral de Bizkaia y Universidad del País Vasco. Es autora de materiales pedagógicos y varias publicaciones sobre Análisis Musical y coautora del libro "Análisis Musical: claves para entender e interpretar la música" (Ed. Boileau, 2004) ■



# Basilio Astúlez

## Director de coros

Nacido en 1975, es licenciado en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco y realiza sus estudios musicales en Vitoria-Gasteiz. Se forma como director en los cursos de la Federación Coral de Euskal Herria, así como en otros cursos y seminarios de España y Europa, trabajando con directores como J. Duyick o J. Busto, entre otros.

Entre 1994 y 2004 ha sido profesor de canto coral en la Escuela de Música de Alegría-Dulantzi y director del coro femenino *Aiala Abesbatza*, de dicha localidad. Entre los años 1996 y 2004 ha sido también director de *Alaitz Abesbatza* de Vitoria-Gasteiz con quien ha obtenido numerosos primeros premios en certámenes de ámbito nacional e internacional, entre ellos el Gran Premio Nacional de Canto Coral 2000.

En 1999 funda el grupo de cámara femenino *Vocalia Taldea,* también poseedor del Gran Premio Nacional de Canto Coral 2001 así como de importantes galardones internacionales (Tolosa 2002, Maasmechelen 2003).

En 1999 se incorpora al Conservatorio Municipal de Leioa como profesor de canto coral, haciéndose cargo de la dirección de la *Coral San Juan Bautista*. En 2001 funda la escolanía *Leioa Kantika Korala* perteneciente al mismo Conservatorio.

Han sido varios los éxitos y premios obtenidos con la *Coral San Juan Bautista*, destacando: Primer Premio en el Certamen Coral 2002 "Villa de Rojales" (Alicante); Diploma de Plata en Polifonía y Diploma de Oro en Música Sacra, en el Festival Internacional de Riva di Garda en Italia (2004); Requiem de Mozart en el Teatro Arriaga (2002) y en la Basílica de San Francisco el Grande de Madrid (2003); Misa en Do Mayor de Beethoven en el Ciclo de Conciertos de Cenarruza (2003) y en la Universidad de Segovia (2004) y el CD bajo el título "Gau ilunak ez badu...".

Al frente de *Leioa Kantika Korala* son de resaltar sus actuciones en: Festival Internacional de Música "Vilanova de Gaia 2004" en Oporto; "Europa Cantat Junior 2004" de Islandia; Temporada de ABAO (2004), en "La Bohéme" de G. Puccini; Festival Internacional Coral de Tolosa (2004); Festival "Europa Cantat Junior 2004" de Barcelona y el CD "Juegos de Otoño", junto a la *Joven Orquesta de Leioa* y la escolanía *Gaudeamus* de Gernika.

Paralelamente, Basilio Astúlez es profesor de dirección coral para diversas federaciones corales: Euskadi, Murcia, Alicante y La Rioja, entre otros, y es solicitado frecuentemente como jurado en certámenes corales, además de ofrecer cursos y seminarios de canto coral. ■



# Svetla Krasteva

Soprano

Nacida en Bulgaria, realizó su carrera musical en el Conservatorio de Sofia, obteniendo las máximas calificaciones. Debutó en el Teatro de Sofia en 1986, con la opera de O. Nicolai "Le Allegre Comandri di Windsor". En 1987 fue becada por la Escuela de Canto del Teatro de La Scala de Milán, para su perfeccionamiento.

Es acreedora de los siguientes galardones: 1º Premio del Concurso "Toti dal Monte" de Treviso (1989); 1º Premio del Concurso "Vuoci Nuove - Puccini e il suo Tempo" (1990); 2º Premio en el Cocurso "Mario del Mónaco" (1991); Finalista en el Concurso "Pavarotti" de Philadelphia (1992).

Entre sus múltiples interpretaciones operísticas caben destacar: el papel de Doña Elvira en "Don Giovanni", bajo la dirección de Meter Maag en diversas ciudades italianas; "Lucia di Lammermoor" en Alemania; "Iphigenie en Tauride" en La Scala de Milán, con Ricardo Mutti; "L'elisir d'amore", "Traviata", "I Pagliacci" y "Carmen" en el Teatro Calderón de Madrid; "La Boheme" en Sudáfrica; "Der Rosenkavalier", con Garcia Navarro, en el Teatro Real de Madrid y "La Bruja" de Chapí y "Marina" de Arrieta en el Teatro Campoamor de Oviedo.

Además, desde 1993 participa en las Temporadas de Opera, dirigidas por Luigi Alva en el Teatro de Lima (Perú), con las producciones de Fausto, Otello, Traviata, Rigoletto, Turandot, y Falstaff entre otras.

Ha participado en los estrenos mundiales de las óperas: "Doctor Faust" de Giacomo Manzoni, con el maesro Gary Bertini, en La Scala de Milán; "Don Quijote" de Cristóbal Halffter, en el Teatro Real de Madrid y "La Señorita Cristina" de Luís de Pablo en el mismo teatro.

Compagina su intensa actividad operística con la música concertística, destacando su colaboración con la Filarmónica de Estrasburgo, dirigida por Theodor Guschlbauer; Requiem de Verdi y Stabat Mater de Dvorak, con el maestro Aronovich, en Frankfurt; grabación del Requiem de Verdi en Suiza (1999); La Creación de Haydn y la Sinfonía Nº 9 de Beethoven. ■



# Jesús Mª García Aréjula

Barítono

Nacido en San Sebastián en 1957 en el seno de una familia vinculada a la música y al Orfeón Donostiarra. En 1979 ingresa en esta entidad coral, actividad que compagina con sus estudios de Ingeniería Industrial en la Escuela que la Universidad de Navarra tiene en San Sebastián hasta finalizar dichos estudios en 1982.

Paralelamente cursa estudios musicales en el Conservatorio de San Sebastián hasta 1996, obteniendo numerosos Diplomas y Premios. Ha participado en numerosas ocasiones como cantante solista, colaborando a menudo con el Orfeón Donostiarra, entidad a la que pertenece en la actualidad.

De su repertorio como cantante solista podemos destacar su dedicación a la música de Oratorio con especial énfasis en la música barroca: Pequeña Misa Solemnis, de Rossini, Requiem de Fauré, Mozart y Duruflé, Oratorios de Navidad de Bach y de Graun, Cantatas para bajo de Bach, The Crucifixión de Stainer, Pasión según S.Marcos de R.Keiser, Mesías de Haendel, etc. También ha hecho incursiones en el campo de la Opera, participando en la Quincena Musical de San Sebastián del año 1997 en la producción del Boris Godunov bajo la dirección de Hans Graff, o en obras como Bastian y Bastiana, La Vida Breve, Fidelio, Atlántida o Carmina Burana.

Ha intervenido en diversos festivales, Canarias, Granada, Santander o Quincena Musical de San Sebastián, Festival de Santander, Festival de Perelada, Ciclo de la Universidad Autónoma de Madrid, Ciclo de los Siglos de Oro en Madrid y Salamanca, Festival de Dax y Festival de Fontevraud, ambos en Francia.

En 2003 actuó en el Auditorio Nacional de Madrid interpretando la Petite Messe Solennelle de Rossini, repitiendo escenario en 2004 con la Misa de Gloria de Puccini. También en 2004 intervino en el XVI Festival de Música y Danza de Úbeda interpretando el Requiem de Brahms junto con la Orquesta de Córdoba. ■

# Banda de Música de Leioa

## Directora: Marta Velasco

La Banda de Música de Leioa se crea en el año 1996, a instancias del entonces profesor de la Orquesta Sinfónica de Bilbao y del Conservatorio de Leioa, Ian Radcliff. Los alumnos y futuros músicos encontraron un medio para desarrollar sus aptitudes musicales y humanas tanto en su entorno geográfico como musical.

Desde 1997, *Leioako Musika Banda* ha realizado diversas actuaciones tanto en Leioa, como en otros municipios de Euskadi. Ha participado en diversos actos de relevancia musical, tales como "Quincena Musical de Donostia", "Muestra de Bandas de Música de Euskadi", "Alarde de Bandas de Irún", "Concentración de Bandas de Renteria", "Musikale", entre otros, además de ofrecer conciertos en diversas ciudades europeas como Salzburgo, Viena, Praga, Budapest, Coimbra, Lisboa, Bruselas, Amsterdam, Barcelona y Berlín.

Su música se dejo escuchar en el espectáculo teatral de 475 aniversario de Leioa, así como, en la inauguración de Kultur Leioa.

Este verano, ha actuado en la Semana Grande de San Sebastián, con gran éxito de crítica y público.

En esta ocasión van a interpretar: Aires Vascos de J.Franco, Oregon de J. Behaan, El príncipe de Egipto de S. Scwartz, y Playas de Rio de K. Vlak ■




Gehien axola zaizuna sustatzen dugu.
PROMOVEMOS LO QUE MÁS TE IMPORTA.
babes ofizialeko etxebizitzak viviendas de protección oficial
etxe erosoak hogares confortables
hiria suspertzea regeneración urbana
kultura cultura
musika música
... ...
BIZKAI EDER 2000
GRUPO BILBO EDER
tel. 944 793 282
Etxebizitza hobeaz gozatzeko.
Para disfrutar de un hogar mejor.



# Leioako Musika Banda

Zuzendaria: Marta Velasco

Leioako Musika Banda 1996. urtean sortu zen, orduan Bilboko Orkestra Sinfonikoko eta Leioako Kontserbatorioko irakaslea zen Ian Radcliff jaunak sustatuta. Ikasleek eta etorkizuneko musikariek euren musika- eta giza gaitasunak euren geografia-inguruan zein musika-inguruan garatzeko modua aurkitu zuten horrela.

1997. urtetik, *Leioako Musika Banda*k hainbat emanaldi egin izan ditu bai Leioa bai Euskadiko beste udalerri batzuetan ere. Musikan izen handia duten hainbat ekintzetan hartu izan du parte, esaterako: "Donostiako Musika Hamabostaldian", "Euskadiko musika banden agerraldian", "Irungo Banda Alardean", "Errenteriako Banda Agerraldian" edo "Musikalen", besteak beste. Halaber, kontzertuak izan ditu Europako hainbat hiritan, Salzburg, Viena, Praga, Budapest, Coimbra, Lisboa, Brusela, Amsterdam, Bartzelona eta Berlinen, adibidez.

Era berean, bere musika entzuteko aukera izan genuen Leioaren 475. urteurrena ospatzeko egin zen antzerki-ikuskizunean, eta Kultur Leioaren inaugurazio-ekitaldian.

Uda honetan Donostiako Aste Nagusian jo du, bai eta arrakasta handia lortu ere, kritikarien eta ikus-entzuleen aldetik.

Oraingo honetan, abesti hauek joko dituzte: Aires Vascos (J. Franco), Oregon (J. Behaan), El príncipe de Egipto (S. Scwartz) eta Playas de Rio (K. Vlak). ■





# Jesús Mª García Aréjula

Baritonoa

Donostian jaio zen 1957an musikari eta Orfeoi Donostiarrari loturiko familia batean. 1979an abesbatza-erakunde horretan sartu zen eta jarduera hori Industria Ingeniaritzako ikasketekin bateratu zuen, azken hau Nafarroako Unibertsitateak Donostian duen Eskolan; ingeniaritza-ikasketak 1982an amaitu zituen.

Aldi berean musika-ikasketak egin zituen Donostiako Kontserbatorioan 1996ra arte; hainbat diploma eta sari lortu zituen. Sarritan abestu du bakarlari gisa, maiz parte hartuz Orfeoi Donostiarrarekin; gaur egun ere erakunde horretakoa da.

Bakarlari gisa abestu ohi duen errepertorioan Oratorioko musikari eskainitakoa nabarmendu dezakegu, enfasi berezia eginez musika barrokoan: Rossiniren Solemnis Meza Txikia; Fauré-ren Requiem; Mozart eta Duruflé; Bach-en eta Graun-en Gabonetako Oratorioak; Bach-en baxurako Cantatak; Stainer-en The Crucifixión; R.Keiser-en S.Markosek kontatutako Pasioa; Haendel-en Mesias; etab. Operaren arloan ere jardun izan du, 1997ko Donostiako Musika Hamabostaldian Hans Graff-ek zuzendutako Boris Godunov-en ekoizpenean parte hartuz, edo Bastian eta Bastiana, Bizitza Laburra, Fidelio, Atlantida eta Carmina Burana bezalako obretan parte hartuz.

Hainbat jaialditan parte hartu du: Kanariar Irlak; Granada; Santander, edo Donostiako Musika Hamabostaldia; Festival de Santander; Pereladako Jaialdia; Madrileko Unibertsitate Autonomoaren Zikloa; Urrezko Mendeen Zikloa Madrilen eta Salamancan; Dax-eko Jaialdia eta Fontevraud-eko Jaialdia, biok Frantzian.

Madrileko Auditorio Nazionalean jardun zuen 2003an Rossiniren Petite Messe Solennelle abestuz, eta berriro egon zen agertoki berean 2004an Pucciniren Aintza Mezarekin. 2004an, baita ere, Ubedako XVI. Musika eta Dantza Jaialdian esku hartu zuen Brahms-en Requiem abestuz, Kordobako Orkestra lagun. ■



# Svetla Krasteva

## Sopranoa

Bulgarian jaio zen eta musika-karrera Sofiako Kontserbatorioan egin zuen, kalifikaziorik onenak lortuz. Sofiako Antzokian egin zuen debuta, 1986an, O. Nicolairen "Le Allegre Comandri di Windsor" operarekin. 1987an Milaneko Scala antzokiko Kantu Eskolaren beka bat izan zuen hobekuntzarako.

Hurrengo sari hauek irabazi ditu: 1. Saria Trevisoko "Toti dal Monte" Lehiaketan (1989); 1. Saria "Vuoci Nuove - Puccini e il suo Tempo" Lehiaketan (1990); 2. saria "Mario del Mónaco" Lehiaketan (1991); Finalista "Pavarotti" Lehiaketan, Philadelphian (1992).

Svetla Krastevaren opera-interpretazio ugarietan nabarmentzekoak dira: Doña Elvirarena "Don Giovanni"n, Meter Maagen zuzendaritzapean Italiako zenbait hiritan; "Lucia di Lammermoor" Alemanian; "Iphigenie en Tauride" Milaneko Scalan, Ricardo Muttirekin; "L'elisir d'amore", "Traviata", "I Pagliacci" eta "Carmen" Madrileko Calderón antzokian; "La Boheme" Hegoafrikan; "Der Rosenkavalier", Garcia Navarrorekin Madrileko Teatro Realen, eta Chapíren "La Bruja" eta Arrietaren "Marina" Oviedoko Campoamor antzokian.

Gainera, 1993tik Opera Denboraldietan parte hartzen du, Luigi Alvak zuzenduta Teatro de Liman (Peru), Fausto, Otello, Traviata, Rigoletto, Turandot, eta Falstaff ekoizpenetan, besteak beste.

Hurrengo opera hauen mundu-estreinaldietan parte hartu du: Giacomo Manzoniren "Doctor Faust", Gary Bertini maisuarekin, Milaneko Scalan; Cristóbal Halffter-en "Don Quijote" Madrileko Teatro Realen, eta Luís de Pabloren "La Señorita Cristina" antzoki berean.

Opera-jarduera trinkoa eta kontzertu-musikarena uztartzen dituelarik, nabarmenak dira: Strsaburgeko Filarmonikoarekiko lankidetza, Theodor Guschlbauer zuzendari; Verdiren Requiema eta Dvorak-en Stabat Mater, Aronovich maisuarekin Frankfurten; Verdiren Requiemaren grabazioa Suitzan (1999); Haydn-en Kreazioa, eta Beethovenen 9. Sinfonia. ■



# Basilio Astúlez

## Abesbatzen Zuzendaria

1975ean jaio zen, Arte Ederretan lizentziatuta dago Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Gasteizen musika-ikasketak egin zituen. Zuzendari-prestakuntza Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen ikastaroetan jaso zuen, bai halaber, Espainiako eta Europako beste ikastaro eta mintegi batzuetan ere, eta, besteak beste, J. Duyick edo J. Busto bezalako zuzendariekin lan egin zuen.

Dulantziko Musika Eskolako abesbatza-kantuko irakasle eta herri bereko *Aiala Abesbatza* emakumeen abesbatzako zuzendaria izan da 1994 eta 2004 bitartean. 1996 eta 2004 bitartean Gasteizko *Alaitz Abesbatza*ko zuzendaria ere izan zen; abesbatza horrekin hainbat sari nagusi lortu ditu esparru nazionaleko nahiz nazioarteko lehiaketetan, 2000ko Abesbatza Kantuko Sari Nagusi Nazionala, besteak beste.

1999an *Vocalia Taldea* izeneko emakumeen ganbera-taldea sortu zuen; talde horrek ere 2001eko Abesbatza Kantuko Sari Nagusi Nazionala du, baita nazioarteko sari garrantzitsu batzuk ere (Tolosa 2002 eta Maasmechelen 2003).

Orobat, 1999an Leioako Udal Kontserbatorioan sartu zen abesbatza-kantuko irakasle, eta *San Juan Bautista Abesbatza*ko zuzendari kargua ere hartuko du. 2001ean, Kontserbatorioaren beraren *Leioa Kantika Korala* haur kantarien abesbatza sortu zuen.

Hainbat izan dira *San Juan Bautista Abesbatza*rekin jadetsitako arrakastak eta sariak; horien artean nabarmentzen dira: Sari Nagusia 2002ko "Villa de Rojales" Abesbatza Lehiaketan (Alacant); Zilarrezko Diploma Polifonian eta Urrezko Diploma Eliz Musikan Riva di Gardako (Italian) Nazioarteko Jaialdian (2004); Mozarten Requiema Arriaga Antzokian (2002) eta Madrileko San Francisco el Grande Basilikan (2003); Beethovenen Meza Do Maiorrean Ziortzako Kontzertu Zikloan (2003) eta Segoviako Unibertsitatean (2004), eta "Gau ilunak ez badu..." izenburuko CDa.

*Leioa Kantika Korala*ko zuzendari karguan azpimarratzekoak dira emanaldi hauek: "Vilanova de Gaia 2004" Nazioarteko Jaialdia, Oporton; Islandiako "Europa Cantat Junior 2004"; OLBEren Denboraldia (2004), G. Pucciniren "La Bohéme" operan; Tolosako Nazioarteko Jaialdia (2004); Bartzelonako "Europa Cantat Junior 2004", eta "Udazkeneko Jolasak" CDa, *Leioako Gazte Orkestra*rekin eta Gernikako *Gaudeamus* haur kantarien abesbatzarekin batera.

Aldi berean, Basilio Astúlez abesbatza-zuzendaritzako irakasle da zenbait abesbatza-elkartetan: Euskadi, Murtzia, Alacant eta Errioxa, besteak beste, eta sarri deitzen diote abesbatza-lehiaketetan epaimahaikide izateko, abesbatza-kantuko ikastaroak eta mintegiak emateaz gain. ■



# Margarita Lorenzo de Reizábal

Zuzendaria

Bilbon jaio zen eta han Piano, Harmonia eta Konposizio Goi Ikasketak egin zituen, kalifikaziorik handienekin eta sariak lortuz. R. Requejo, E. Jiménez de Achúcarro eta I. Picazarekin pianoko teknika hobetu zuen. Neurokirurgian lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean.

Kontzertu-lan trinkoa garatu du Estatu osoan eta Eskandinavian, bai bakarlari gisa, bai ganbera-taldeetan. Bilboko Orkestra Sinfonikoko pianista izan da 1982tik 1998ra, Estatuko beste orkestra batzuekin kolaboratuaz gain.

Orkestra Zuzendaritzako ikasketak Ingalaterran egin zituen R. Saglimbeni, G. Hurst eta N. Thompson maisuekin. 2001ean Orkestra Zuzendaritza master bat egin zuen Surreyn (Ingalaterra), R. Houlihan, Dense Ham eta G. Hurst maisuekin. Urte horrexetako abuztuan mundu osoko 48 zuzendariren artean aukeratu zuten Canford-en (Ingalaterra) Nazioarteko Zuzendaritza Ikastaroaren Orkestra zuzentzeko. Madrilen Jesús López Cobos-en zuzendaritzapean lan egin du, eta aldizka haren aholkuak jasotzen ditu.

1987an oposizioz lortu zuen Leioako Udal Kontserbatorioko Harmonia-Konposizioko katedra eta 1993az geroztik Leioako Gazte Orkestrako Zuzendari Titularra da; zeregin horretan pedagogia eta kontzertu lan trinkoa garatu du, besteak beste: Bilboko Arriaga antzokia eta Euskalduna jauregia, Donostia, Gasteiz, Errenteria (Musikaste), Logroñoko Auditorio Nazionala nabarmentzen direla, baita zenbait kontzertu ere Madrilen, Katalunian, Segovian eta, berriki, Baionako Katedralean, John Rutter-en Mass of the Children-en Frantziako estreinaldia eskaintzeko.

Lau disko konpaktu grabatu ditu, eta horien artean: Beethovenen Meza Do Maiorrean; oso-osorik euskal egile garaikideen lanekin egindako programa bat, 90 ahots zurik parte hartuta, eta Bilboko Arriaga antzokian zuzenean egindako Mozarten Requiemaren grabazioa.

Piano, ganbera-musika eta inprobisazio ikastaroak eman ditu udako nazioarteko ikastaro zenbaitetan (Bilbao, Donostia, Burgos, Valentzia) eta aldizka sarri zuzentzen ditu irakasleentzako Musikaren Analisi eta Hezkuntza ikastaroak, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak sustatuta. Material pedagogiko zenbaiten eta Musikaren Analisiari buruzko zenbait argitalpenen egilea da eta "Análisis Musical: claves para entender e interpretar la música" (Ed. Boileau, 2004) liburuaren egilekidea da. ■

# Leioako Gazte Orkestra

## Zuzendaria: Margarita Lorenzo de Reizábal

Leioako Gazte Orkestra 1990ean sortu zen Leioako Udal Kontserbatorioan, ikasleak atrileko zeregin zailean prestatzeko helburuarekin; hortik, bada, Gazte Orkestraren errepertorio ugaria, zein barrokotik gure garairaino hedatzen baita. Orkestra honen egikarien artean, halaber, egile garaikideen zenbait obraren munduko estreinaldiak daude. Erdi mailako azken kurtsoetako ikaslez eta, halaber, euren errepertorioa zabaltzen segitu eta orkestraren musika-giro artistikoan parte hartu nahi duten ikasle ohiz dago osatuta.

Nigel Wareham (1990-1993) eta 1993tik Margarita Lorenzo de Reizabal zuzendarien agindupean lan egin du. Orobat, nazioarteko mailako bakarlariekin ere jardun du, hala nola Felix Ayo biolin-jolea, eta Colman Pearce eta Enrique García Asensio maisuek zuzendu dute, zuzendari gonbidatu gisa.

Urteotan zehar Orkestrak kontzertu-lan trinkoa egin du, hala Euskadin, nola beste autonomia erkidego batzuetan, eta sarritan deitu dute ongintzazko kontzertuetarako, nazioarteko biltzarretarako eta kontzertu didaktikoetarako.

Sinfonia-abesbatzaren arloan sarri eskaini ditu emanaldiak Leioako San Juan Bautista Abesbatzarekin batera, bai halaber Leioa Kantika Korala haur-abesbatzarekin, nabarmentzen direla: Mozarten Requiema Bilboko Arriaga antzokian eta Madrileko San Francisco el Grande Basilikan; Bethovenen Meza Do Maiorrean Ziortzako Kontzertu Zikloan (2003) eta Segoviako Unibertsitatean (2004); John Rutter-en Mass of de Children Baionako katedralean, azken honetan ere Leioa Kantika Koralarekin batera (2005).

Orkestraren egikarietan bost disko konpaktu daude, horien artean Bethovenen Meza Do Maiorrean, programa bat oso-osorik euskal egile garaikideen lanekin egindakoa, 90 ahots zurik parte hartuta, eta Bilboko Arriaga antzokian zuzenean egindako Mozarten Requiemaren grabazioa.

Leioako Gazte Orkestrak RTVEko “El Conciertazo” telesaio entzutetsuan parte hartu zuen 2005eko ekainean; orain berriro parte hartzeko konpromisoa du 2006ko lehenengo seihilekorako.

Kritika espezializatua bat dator LGOren emanaldietan soinuaren kalitatea, interpretazioaren freskotasuna eta egiten ari den lanaren seriotasuna nabarmentzerakoan. ■



# Leioako San Juan Bautista Abesbatza

Zuzendaria: **Basilio Astúlez**

Abesbatza-talde hau tradizio handikoa eta sustraitze sakonekoa da Bizkaiko abesbatza-munduan. Jose Ignacio Sarriak sortu zuen 1968an; bere ibilbide luzean kolaborazio ugari egin ditu orkestra eta zuzendari ospetsuekin, baita herrialdeko auditorio eta antzoki askotan ere jardun du. Gainera, lau disko ere baditu grabatuta; horietako bat Anton Larrauriren musikarekin, eta hainbat abesbatza-lehiaketa garrantzitsutan parte hartu du, nabarmentzen direla, besteak beste, Zilarrezko Domina Tolosako Nazioarteko Lehiaketan (1971) eta Urrezko Domina Torreviejako Habanera Lehiaketan (1972).

Handik urte batzuetara, 1995ean, Leioako Udal Kontserbatorioarekin bat egingo du eta 1999tik Basilio Astulezek hartuko du abesbatzaren zuzendaritza. Azken aldi horretan Leioako Abesbatzak lehiaketa nazional ugaritan parte hartu izan du, hainbat sari ere lortuz, besteak beste: Bigarren Saria " Fira de Tots Sants" Abesbatza Lehiaketan, Concentaina Alacanten (1999); Bigarren Saria Villa de Autol" Errioxako (2000) abesbatza-lehiaketan; Bigarren Saria Novelda Alacanteko (2002) Eliz Musikako II. Lehiaketa Nazionalean; Lehenengo Saria "Villa de Rojales" Alacanteko XXVI. Abesbatza Lehiaketa Nazionalean (2002); Bigarren Saria XIV. "Villa de Griñon" (Madril) Nazioarteko Lehiaketan (2005).

Sorreraren 25. urteurrena ospatu zuen 2003an; horretarako, kontzertu-ziklo berezi bat antolatu zuen eta, halaber, disko konpaktu bat atera, "Gau ilunak ez badu..." izenburuduna.

Hurrengo urtean, 2004ko apirilean, Riva de Gardako (Italia) VII. Nazioarteko Jaialdian parte hartu zuen, Estatuko ordezkari bakarra izanik beste 110 herrialdetako abesbatza-talde banarekin batera. Zilarrezko Diploma lortu zuen Polifonian eta Urrezko Diploma Eliz Musikan, kritika eta publiko arrakasta handiarekin.

Azken urteotan, Margarita Lorenzo de Reizabalen zuzendaritzapean eta Leioako Gazte Orkestrarekin, batez ere interpretatu ditu: Mozarten Requiema Arriaga antzokian (2002) eta Madrileko San Francisco el Grande Basilikan (2003); Bethovenen Meza Do Maiorrean Ziortzako Kontzertu Zikloan (2003) eta Segoviako Unibertsitatean (2004); John Rutter-en Mass of de Children Baionako katedralean, azken honetan ere Leioa Kantika Koralarekin batera (2005). ■



# Leioa Kantika Korala

Zuzendaria: **Basilio Astúlez**

Leioako Udal Kontserbatorioaren baitan sortu zen 2001ean, bertako zuzendari Basilio Astúlezen ekimenez. 10 eta 17 urte bitarteko 50 neska-mutilek osatzen dute, denak Kontserbatorioko ikasleak. Helburu behinenak abesbatza-musikak ematen duen gozamenaren partaide egitea eta haien musika-prestakuntza hobetzea ziren, horretarako, estilo eta errepertorio ahalik eta ugarienera eta aberatsenera hedatuz.

Hasieratik Kantikak zenbait abesbatza elkarraldi eta jaialditan parte hartu du, hala Euskal Herrian, nola hemendik kanpora (Bilbo, Gasteiz, Donostia, Ávila…).

Eta 2003an abesbatzak "Vilanova de Gaia 2004" Gazteentzako XI. Nazioarteko Jaialdian parte hartu zuen, Oporton, oso jatorri desberdinetako gazte abesbatza eta orkestra zenbaitekin batera, kritika eta publiko aldetik arrakasta handia lortuz. Hori ez ezik, kontzertu –bira bat ere egingo du Gaudeamus Koralarekin eta Leioako Gazte Orkestrarekin, euskal egile garaikideak interpretatuz; gero ere Musikaste 2003an (Errenteria) aurkeztu zen eta disko konpaktu batean jaso "Udazkeneko Jolasak" izenarekin. Besteak beste, CD horretan Eva Ugalde egile donostiar gaztearen "Iratxoa" obra ere badago, bereziki egitasmo honetarako idatzia, hain zuzen.

Eta 2004an Islandiara egin zuen bidaia, "Kopágovur-eko II. Aste Kantaria"n parte hartzeko, Asiako eta Europako beste 13 haur-abesbatzarekin batera. Jaialdirako kontzertu batzuk eskaintzeaz gain, Kantikak eskandinaviar musikan espezializaturiko tailer bat ere egin zuen, John Steffanson islandiar maisu ospetsuaren zuzendaritzapean.

Urte berean OLBEren 53. Opera Denboraldiaren inaugurazioan parte hartu zuen, G. Pucciniren "La Bohéme" opera interpretatuz Aquiles Machado tenorrarekin eta Maria Bayo sopranoarekin batera. Aldi horretan halaber, Tolosako 36. Nazioarteko Abesbatza Jaialdian parte hartuko du; entzute zabaleko lehiaketa horretan jatorri desberdinetako beste bost haur-abesbatzak ere jardun zuten.

Aurten, 2005ean, Baionako Katedralean kantatu zuen John Rutter egile ingelesearen "Mass of the children"en Frantziako estrainaldian. Ekainean Bartzelonako "Europa Cantat Junior" jaialdian parte hartu du, Naomi Farahm israeldarraren zuzendaritzapean. ■





# Mass of the children

## John Rutter (1945 - ...)

"Ezagunago izan arren bere gabon-kanta eta iraupen laburrreko beste obra batzuengatik, John Rutterek baditu abesbatzentzako eta orkestrarako izari handiagoko beste obra batzuk ere, hala nola: *Requiem*, *Gloria*, *Magnificat*, *Psalmfest*; umeentzako *Bang!* opera, eta *Umeen Meza,* zein New Yorkeko Carnegie Hall-en estreinatu baitzen 2003ko otsailean. Meza hori abesbatza mistoarentzat, umeen abesbatzarentzat, soprano nahiz baritono bakarlarientzat eta orkestrarako dago idatzita. Testua "Misa brevis" tankeran dago idatzita (Credo barik), baina testu poetiko ingeles ospetsu zenbait erantsita. Euskalduna jauregian eskainiko den emanaldia lehenengoa izango da Estatu guztian.

Obra ez da berehala hasten "Kyrie Eleison"arekin, goizari eskainitako "Awake, my soul, and with the sun" ereserkiarekin baino, umeen abesbatzak abestuta. Gero "Gloria" oparo eta indartsu bat agertzen da, erritmo dessberdinekin, ohikoa dena Rutheren bizitasunean. "Sanctus-Benedictus" darraio, erabat aldatuta adierazpena eta egitura harmoniko gozo batean bermatuta. Laugarren mugimenduan "Agnus Dei"ren testuari olerki bat darraio, "The Lamb", haurren abesbatza batek abestuta. Azken mugimendua otoitz birekin hasten da, John Rutterenak berarenak, baritono eta soprano bakarlarientzat, hurrenez hurren, haurrek abestutako "Glory to thee, my God, this night" gauaren ereserki ederra ondoren, nagusien abesbatzaren "Dona nobis pacem" kantuarekin nahasita. Abesbatzek eta bakarlariek guztiek batera burutzen dute obra, bakez betetako amaieraraino.

John Rutter-ek ez du haurren abesbatza bere Umeen Mezan sartzen nagusienaren osagarri gisa, protagonismo berezia emanda baino. Umeak dira hasiera-hasieratik entzuten direnak eta haien presentziak Mezan zehar iraungo du, kontzeptu global gisa. Aurrean dugun partitura zoragarriro dago sortuta ahotsentzat eta miresgarriro orkestratuta. Haren bakarlari, abesbatza eta orkestrarentzako idazkera trebearen eta, latinezko testuak ingelesezkoekin nahasteko, duen sentikortasunaren emaitza obra bikain eta hunkigarri bat izan da." ■

**John Bawden**
Musika Zuzendaria
Fareham Philharmonic Choir

# Egitaraua

## 1. ZATIA

| | |
|---|---|
| **Tximeletak** | E. Ugalde |
| **Dubula** | H. Leeck (Arreglo) |
| **Keren or** | A. Nini y G. Dor |

### LEIOA KANTIKA KORALA

Pianoa: **Itziar Bilbao**
Zuzendaria: **Basilio Astúlez**

| | |
|---|---|
| **Crucifixus** | A. Loti |
| **Ave Maria** | J. Busto |
| **I was glad** | Sir H. Parry |

### LEIOAKO SAN JUAN BAUTISTA ABESBATZA

Organoa: **Oscar Candendo**
Zuzendaria: **Basilio Astúlez**

| | |
|---|---|
| **Xirula eta orkestrarako kontzertinoa** | C. Chaminade |
| **Sinfonía española** (1° Mugimendua) | E. Lalo |
| **8. Eslaviar dantza** | A. Dvóràk |

### LEIOAKO GAZTE ORKESTRA

Xirula: **Xabier Calzada**
Biolina: **Andrea Duca**
Zuzendaria: **Margarita Lorenzo de Reizábal**

**20 minutu Atsedena**

## 2. ZATIA

**Mass of the children** (Estreinaldia Estatu) — John Rutter

- Kyrie
- Gloria
- Sanctus - Benedictus
- Agnus Dei
- Finale (dona nobis pacem)

### LEIOA KANTIKA KORALA
### LEIOAKO SAN JUAN BAUTISTA ABESBATZA
### LEIOAKO GAZTE ORKESTRA

Sopranoa: **Svetla Krasteva**
Baritonoa: **Jesús Mª García Aréjula**
Abesbatzen Zuzendaria: **Basilio Astúlez**
Zuzendaria: **Margarita Lorenzo de Reizábal**

**Oharra:** Kontzertuaren aurretik, antzokiko hallean, **Leioako Musika Bandak** J. Franco, J. Behaan, S. Scwartz eta K. Vlak-en lanak eskainiko ditu, ikus-entzuleentzat.

dira. Leioa heltzen dabil, bere buruarengan eta inguruarengan azaltzen den moduan.

Hori guztia dela eta, maila handiko musika-taldeak eta interes handiko egitaraua dugunez, topaketa hau Bilboko Euskalduna Jauregian egitea pentsatu dugu.

Horretarako BIZKAIEDER enpresaren babesa izango dugu, berau dela geure hiria eta erkidegoa garatzearen protagonista, eta konpromiso berezia duela Lamiako eta Txopoetako Barne Berrikuntza eta Birgaiketako Plan Bereziarekin (BBBPB). BIZKAIEDERek ezin hobeto ulertu du topaketa honen esanahi eta garrantzia eta, horregatik, **kontzertu** hau egin ahal izateko eskaini digun lankidetza eskertu nahi diogu.

Leioak unibertsitate-hiri txikia izan nahi du. Bizitzeko eta ondo pasatzeko gune atsegina. Prestakuntza jaso eta jakintzak ugaritzeko. Enplegua eta garapen sozio-ekonomikoa sortzeko. Eta hori guztia, musikaz blai. ■

**Karmelo Sáinz de la Maza Arrola**

Leioako alkatea

---

**Euskalduna Jauregia**
Igandea, Urriak 23, 19:00

**Sarrerak:** 10 € / 6 €
Leioako Udal Kontserbatorioa
www.euskalduna.net
TEL. 944 310 310
BBKren autozerbitzu-kutxazainak
Euskalduna Jauregiko txarteldegiak

Kontzertuan bildutako dirua **Euskal Herriko Gurutze Gorriarentzat** izango da, Nepaleko Emakumentzako eta Gutxiengo Etnikoentzako Lanbide Heziketako Programarako.



Gurutze Gorriaren jardurek adinekoei, umeei, etorkinei eta talde ahulei daude zuzenduta, eta nazio mailako zein nazioarteko giza, osasun, gizarte eta ingurumeneko larrialdiei ematen diete erantzuna.

Nepaleko emakume eta gutxiengo etnikoei zuzendutako lanbide prestakuntzako programa Gurutze Gorriaren lehentasuneko proiektuetako bat da, zehatzago esanda, garapen instituzionalerako eta emakumearen sustapenerako proiektuaren barruan dago. Kontzertu honetan bildutako diru guztia proiektu horretara bideratuko da.

Cruz Roja
Gurutze Gorria

# Leioa musikaz blai

## Euskalduna Jauregian



Leioa "hiri txikiak", duela urte asko, apustu handia egin zuen musika alorrean. Euskal Herriko berezko musika tradizionalaren barruan, geure herriak hainbat musika-adierazpen izan zituen iraganean, batez ere abesbatzen alorrean; hala ere, azken urteetan musika hezkuntzaren aldeko aukera egin du, argi eta garbi. Horrela bada, laurogeiko hamarkadaren hasieran, Musika Eskola eta Leioako Udal Kontserbatorioa sortu ziren.

Une hartatik bertatik, Zentroa kuantitatiboki hazi da, kopuru esanguratsuan eta, gainera, kalitatean eta etorkizunerako aukeretan ere heldu egin da. Hainbat eta hainbat ume, gazte eta ez hain gazte ibili dira bertako ikasgela eta instalazioetan, primeran pasatzen. Etengabe, beste ikasgai eta musika-tresna batzuk gehitu izan dira eta, era berean, geure inguruan izen handia duten irakasleen plantilla osatu da. Ondorioz, musika alorreko hezkuntza-kalitateari dagokionez, parametro bikainak eskuratu dira, bai eta balio oso handiko arte-proiekzioa ere nazioko zein nazioarteko hainbat eszenatoki garrantzitsutan.

Apal-apal bete dugu Euskadin goi mailako musika-hezkuntzan sartzeko modua, geure neurrian baina modu adierazgarrian. Era berean, beste bide bat ere ireki dugu: Baionako kontserbatorioarekin lankidetzan aritu eta elkar aberastea. Askok eta askok euren bizitzako atal garrantzitsu bihurtu dute musika; beste batzuk musikari profesionalak dira orain, eta euren bizimodua da musika.

Diotenez, musikak zentzua eta esanahia eransten dizkio lengoaiari, emozioak sortu eta gizakien arima modulatzen du. Musikak, inolako zalantzarik gabe, eragin berberak ditu erkidegoan. Horrexegatik, musika, Leioan, geure erkidegoaren arima hazteko indar handiko elementua izan liteke, eta hala da. Hirigintza aldean hainbeste hazi den eta gero eta herritar gehiago dituen udalerri honetan, halaber, geure nortasun sentimenduak ere hazten joan izan

# leioa

udal aldizkaria

2005 · **42. Zbk.**

LEIOA UDALA DE LEIOA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
LEIOA AYUNTAMIENTO

www.leioa.net

# Mass of the Children

## John Rutter

**Leioa Kantika Korala**
**Leioako San Juan Bautista Abesbatza**
**Leioako Gazte Orkestra**
**Svetla Krasteva** - Sopranoa
**Jesús Mª García Aréjula** - Baritonoa
**Basilio Astúlez** - Abesbatzen Zuzendaria
**Margarita Lorenzo de Reizábal** - Zuzendaria



**EUSKALDUNA JAUREGIAN, Urriaren 23an, 19:00etan**

ANTOLATZAILEA: BIZKAI EDER 2000 GRUPO BILBO EDER tel. 944 793 585